

RUEDA DE PRENSA

Denok batera. Por nuestros derechos: paz y libertad

Un año más, la Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria convoca a la ciudadanía a una manifestación para exigir la paz. Esta reivindicación de paz, quizás, pudiera parecer simple, pero consideramos imprescindible recordar nuestro mensaje pacifista precisamente en esta coyuntura. El concepto de paz que tenemos en Gesto por la Paz no es una idea hueca, sino por el contrario, llena de contenido, del contenido que marca las líneas de actuación que desarrolla nuestra organización: la extensión de la cultura de paz, la solidaridad con las víctimas de la violencia, el respeto hacia los derechos de las personas presas por delitos de terrorismo y, fundamentalmente, la condena de la violencia en favor de la utilización de la palabra.

Nuestra sociedad está trágicamente marcada por la violencia que ejerce ETA y contaminada por una pernicioso cultura de violencia. Desde Gesto por la Paz consideramos necesaria y urgente una intervención pedagógica en la sociedad. No sólo los jóvenes, sino también los adultos, necesitamos reflexionar, repensar sobre algunos aspectos que, quizás, por obvios, los hemos ido abandonando. Partimos de la idea de que los **derechos humanos** tienen un **carácter universal**, es decir, deben ser exigidos para todas las personas. Sólo una sociedad que trabaje en el desarrollo y fomento de valores asentados sobre esta firme y sólida base, podrá hacerse inmune a los efectos de la cultura de violencia. Una sociedad que no trabaje en esta línea se verá envuelta, sin apenas percatarse de ello, por uno de los más perniciosos efectos que dicha cultura violenta lleva consigo: exigir los derechos para mí y los míos e ignorarlos o negarlos cuando se trata de aplicar esos mismos derechos a personas que piensan o actúan de manera diferente. Por desgracia, hoy en día, mostramos cierta tendencia a trabajar desde esa **"doble moral"** que nos conduce a asumir como "normal" esa doble manera de medir.

Ante esa actitud el ser humano pone en marcha los mecanismos precisos que le ayuden a evitar sentirse tan inhumano, tan culpable ante esta incómoda discriminación: nos alejamos de concederles cualquier rasgo humanizador. Cuando dejamos de ver a las personas como sujetos de derechos, y por tanto como iguales, y tendemos a cosificarlas e ignorarlas, nuestro grado de injusticia para con ellas ha comenzado su ascendente carrera.

Desde Gesto por la Paz, consideramos que el mejor antídoto de cara a prevenir o paliar al menos, los nocivos efectos que se derivan del uso y del abuso de una cultura de violencia, es sin duda la **empatía**. Se trata de aprender a ponernos en el lugar de otras personas y exige por nuestra parte un aprendizaje activo y comprometido. Debemos tratar de imaginarnos a nosotros y nosotras mismas ante las situaciones que están viviendo las personas con las que tratamos de empatizar, anticipando cómo nos sentiríamos o cómo reaccionaríamos ante tales situaciones. Quien realice este ejercicio acerca de cualquier persona, difícilmente se atreverá a despojarla de su dignidad como ser humano, sin sentirse inhumano.

Una de las preocupaciones más constantes de Gesto por la Paz ha sido la situación de las víctimas del terrorismo, porque consideramos que ellas son las grandes sufridoras de la violencia que ha padecido y padece nuestra sociedad. El **RECONOCIMIENTO** del agravio padecido por las víctimas y la debida **SOLIDARIDAD** de nuestra sociedad ante el sufrimiento de sus familias y personas allegadas, nos debe llevar a deslegitimar el uso de la violencia. La sociedad debe denunciar claramente aquellos actos y argumentos que pretendan justificar o relativizar tantos años de violencia y de dolor. Igualmente, hemos de insistir en la recuperación de la **MEMORIA** que la sociedad ha de asumir con respecto al dolor de todas las víctimas. Tiene que ser una **memoria social** que incorpore este dolor a nuestra memoria colectiva. Esta necesaria memoria sólo es posible tras el **esclarecimiento de la verdad**. Por eso, la actuación de la Justicia constituye un derecho fundamental de las víctimas.

El sistema democrático defiende los derechos de las personas privadas de libertad. En Gesto por la Paz seguimos insistiendo en el respeto de los derechos que les asisten porque no puede haber distintas varas de medir cuando de derechos humanos se trata. Entendemos que, sin la exigencia del más absoluto y escrupuloso respeto por parte de la sociedad hacia los derechos de las personas privadas de libertad, se corre el riesgo de caer en la doble moral que nos ofrece la cultura de la violencia.

Queremos incidir en un tema que nos preocupa y que está de actualidad: el derecho a la reinserción. Teniendo en cuenta al penado y a la sociedad, Gesto por la Paz se ha manifestado en reiteradas ocasiones en favor de la reinserción porque, además de ser un derecho del preso, de ser uno de los fines de la condena y una de las obligaciones de la política penitenciaria respecto al preso, consideramos altamente positivo que la sociedad recupere a una persona que incluso ha asesinado, sobre la que existen garantías de que no va a cometer más delitos. Por el contrario, consideramos un auténtico fracaso, cuando un penado, una vez cumplida la totalidad de su condena, vuelve a la sociedad de nuevo como asesino.

Como organización pacifista, una de las señas de identidad más destacada de Gesto por la Paz ha sido la condena pública del uso de la violencia con pretendidos fines políticos. En este sentido, se realiza una apuesta implícita de todo aquello que niega la violencia: el derecho a la vida, la libertad y el ejercicio de la palabra. Precisamente, en relación a estas dos últimas ideas queremos reiterar mensajes que acompañan a nuestro discurso de estos últimos años:

Existen diversos **conflictos políticos** similares a los de otras comunidades, pero lo que es trágicamente diferente en nuestra sociedad es el **problema de la violencia terrorista**. En Gesto por la Paz consideramos un grave error caer en la trampa que nos pone la violencia al pretender unir la solución de ambos conflictos, porque hacerlo supone dotar a la violencia de una legitimidad política que no puede tener. Cada uno de los proyectos para el futuro de esta sociedad, por ejemplo de más soberanía o de defensa del actual "statu quo", se deberá debatir argumentando que es el más adecuado para esta sociedad y su actual riqueza identitaria; y no defenderlos como los instrumentos que traerán la paz.

La sociedad vasca ha demostrado, por activa y por pasiva, ser una sociedad plural, especialmente plural podríamos decir si atendemos a la variedad de partidos representados en nuestro Parlamento. Y desde el más profundo respeto a esta **pluralidad** que consideramos sumamente enriquecedora y como defensores de ella, en Gesto por la Paz no apostamos por una uniformidad ni por una dejación de los posicionamientos ideológicos de cada cual, siempre y cuando se encuadren dentro de los principios democráticos y de respeto a los derechos humanos, pero sí apostamos por renunciar a utilizar la violencia como arma arrojadiza en política, por hacer esfuerzos por establecer vías de diálogo y por alcanzar consensos en materias de un bien común tan importante como la consecución de la paz.

En este sentido, creemos que es imprescindible alcanzar la **unidad de las fuerzas políticas, sociales y de toda la ciudadanía en general** en relación al terrorismo porque permitir una fractura entre quienes condenamos la violencia, será la primera victoria real de quienes la ejercen. Esta manifestación es una invitación a ser un punto de encuentro entre las personas de diferentes sensibilidades sociales y políticas, que rechazamos la violencia.

El ejercicio de la palabra, la vida democrática, está intrínsecamente unido a la existencia de libertad. Hoy en día, en la Comunidad Foral Navarra y, especialmente, en la Comunidad Autónoma Vasca hay una importantísima carencia de libertad que limita considerablemente el ejercicio normalizado de la democracia.

Esta violencia de persecución podría ser considerada como un problema que afecta sólo a algunos partidos, pero es en realidad un problema de gran calado y uno de los aspectos

fundamentales de la convocatoria de manifestación de este año. Esta falta de libertad que, efectivamente afecta especialmente al Partido Popular, Unidad Alavesa y al Partido Socialista - aunque en determinadas zonas también se extiende a otros partidos-, está poniendo en jaque a todo el sistema democrático. No podemos pensar que sólo es un problema de dos partidos, sin darnos cuenta de que nuestra propia libertad, votemos lo que votemos, también queda en entredicho y siguiendo a Voltaire: *No estoy de acuerdo con tu opinión, pero lucharía para que pudieras defenderla*. Hoy, en Euskadi tenemos una oportunidad de oro para llevar a cabo esta idea.

En Gesto por la Paz consideramos que esta situación es un gravísimo problema

- a) porque un porcentaje alto de los miles de ciudadanos y ciudadanas vascas y navarras que se presentan para ser nuestros representantes están amenazados de muerte
- b) porque supone que no todos los partidos políticos pueden actuar en igualdad de condiciones, lo cual puede tener repercusión en los resultados electorales
- c) porque la restricción de derechos no se limita a los candidatos y candidatas, sino también a la parte de población que les elige y que ve limitada la posibilidad de que su representante le represente en su municipio

Así pues, desde Gesto por la Paz reclamamos de la sociedad un compromiso activo con el escrupuloso respeto a los derechos humanos de todos los ciudadanos, especialmente el inviolable derecho a la vida, con la justicia, con la humanización de nuestras relaciones, con la libertad... en definitiva, un compromiso con nuestro propio futuro. Y, en esta coyuntura pre-electoral, reclamaremos nuestro derecho a ejercer la democracia en libertad.

Por ello, animamos a todos los ciudadanos, hombres y mujeres, jóvenes y ancianos, nacionalistas y no nacionalistas, jubilados y parados, jugadores de fútbol y trabajadores de la construcción... animamos a todos a que el 1 de febrero en Bilbao reafirmen su compromiso con el trabajo por conseguir una sociedad justa donde la de ayer fuera la última víctima y de las anteriores no quedara ninguna sin nuestro consuelo, sin nuestro calor; una sociedad equilibrada y justa que pudiera tender la mano al descarriado; una sociedad de la que desterráramos los tabúes y se pudiera hablar con libertad de todas aquellas cosas que nos preocupan sin miedo a no ser respetado o a ser convencido; una sociedad en la que cupiéramos todos y sólo dejáramos fuera la intolerancia, la falta de respeto y el fanatismo.

Con el lema *Denok batera. Por nuestros derechos: paz y libertad* a partir de las 17'30 h. marcharemos desde la Plaza del Sagrado Corazón por las calles de Bilbao el 1 de febrero para reclamar una vez más lo que es nuestro.

Denok batera. Por nuestros derechos: paz y libertad

Beste urte batez Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak hiritarrei deialdia egiten die bakea eskatzeko helburuarekin antolatzen duen manifestaziora etor daitezten. Bakearen Aldeko Koordinakundean daukagun bakearen kontzeptua ez da ideia hutsala, edukinez betetako ideia baizik, eta eduki honek markatzen du gure erakundeak garatzen duen jarduera: bake kulturaren hedapena, indarkeriaren biktimekiko elkartasuna eta terrorismo delituak direla eta preso dauden pertsonen eskubideekiko errespetua, bi hitzetan esateko, indarkeriaren gaitzespena hitzaren mesedetan.

Gure gizartea ETAk eragiten duen indarkeriak markatzen du tragikoki eta indarkeriaren kultura galgarriak kutsatzen du. Bakearen Aldeko Koordinakundean beharrezko eta premiazkotzat jotzen dugu gizartean pedagogikoki esku-hartzea. Ez bakarrik gazteak, helduok ere gogoeta egin beharra daukagu, agian begi bistakoak direlako albo batera utzi ditugun gai batzuen inguruan berriz hausnartu.

Giza eskubideen izaera unibertsalean oinarritzen gara, hau da, pertsona guztientzat eskatu behar dira. Oinarri sendo eta irmo honetan finkatutako baloreen garapen eta sustapenean lan egiten duen gizartea soilik geratuko da indarkeriaren kulturaren eraginetik aske. Aitzitik, norabide honetan lan egiten ez duen gizartea indarkeriaren kulturaren eragin kaltegarrietariko batek bilduko du konturatu gabe: eskubideak niretzat eta nire hurkoentzat eskatu eta nik bezala pentsatzen ez dutenei edo beste era batera jarduten dutenei dagokionean, ukatu edo entzungor egin. Zoritxarrez gaur egun "moral bikoitz" hau lantzen dugu, eta normaltzat jotzen dugu pertsonak ezberdin neurtzeko joera hau.

Bakearen Aldeko Koordinakundean indarkeriaren kulturaren ondorioz kaltegarrienak saihesteko edo aurre egiteko antidotorik onena **enpatia** dela uste dugu; beste pertsonen lekuan jartzen ikasi beharrean gaude, eta honek ikasketa aktibo eta konprometitua eskatzen digu.

Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeko kezkarik nagusienetakoa terrorismoaren biktimen egoera da, beraiek direlako gure gizarteak jasan duen eta jasaten ari den indarkeriaren sufritzaile handiak. Biktimek pairatu duten iraina **AINZAT HARTZEAK**, eta gure gizarteak familiarteko eta hurkoen sufrimenduaren aurrean erakutsi behar duen **ELKARTASUNAK** indarkeriaren erabilerari zilegitasuna kentzera eraman behar gaituzte. Gizarteak argi eta garbi salatu behar ditu indarkeria eta oinazez gainezka igaro diren hainbeste urte justifikatu edo erlatibizatzen saiatzen diren ekintza edo argudioak. Era berean gizarteak bere gain hartu beharra daukan biktima guztien oinazearen inguruko **MEMORIA** berreskuratzen jardun behar dugu. Oinaze hau gure memoria kolektiboan txertatuko duen **gizarte-memoria** izan behar da. Memoria hau **egia argitu** ondoren bideratu ahal izango da soilik. Hau dela eta Justizia gauzatzea biktimen oinarrizko eskubidea da.

Sistema demokratikoak askatasunik gabe dauden pertsonen eskubideak defendatzen ditu. Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak pertsona hauen eskubideen errespetua eskatzen dihardu, giza eskubideei dagokionez ezin delako neurtzeko modu ezberdinik erabili. Askatasunik gabe dauden pertsonen eskubideen errespetuaren exigentzia erabateko eta arduratsua ez badago gizartearen aldetik, indarkeriaren kulturak eskaintzen digun moral bikoitzean erortzeko arriskua daukagu.

Kezkatuta gauzkan gaurkotasunezko gai bat aipatu nahi dugu orain: bergizarteratze eskubidea. Zigortua eta gizartea kontuan hartuz, Bakearen Aldeko Koordinakundea bergizarteratzearen alde azaldu da behin eta berriro, presoaren eskubidea izateaz gain, kondenaren helburuetariko bat eta kartzela politikak presoarekiko daukan obligazioa delako, eta gizartearen onerako ere badelako pertsona bat berreskuratzea, garai batean hiltzailea izan arren, aurrerantzean delitu gehiago ez duela egingo bermatu ezker.

Talde bakezalea garenez, ustezko helburu politikoak dituen indarkeria publikoki salatzea izan da eta da Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen ezaugarriarik nabarmenena. Zentzu honetan indarkeria ukatzen duen guztiaren aldeko apustu inplizitua egiten dugu: bizitzeko eskubidea, askatasuna eta hitzaren erabilera. Azken bi ideia hauen inguruan, gure azken urteotako diskurtsoarekin bat datozen mezuak gogora ekarri nahi ditugu hain zuzen ere:

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

- o Badaude beste erkidegoetan gurearen antzeko gatazka politikoak, baina indarkeria terroristaren arazoak markatzen du tragikoki gure gizartea. Bakearen Aldeko Koordinakundearentzat, indarkeriaren gatazkaren konponketa gatazka politikoa konpontzeari lotzea indarkeriak jartzen digun tranpan erortzea litzateke, eta hau akats larria da, indarkeriari berea ez den zilegitasun politikoa ematea delako.
- o Euskal gizartea guztiz plurala da. Guretzat hain aberasgarria den **pluraltasun** honen errespeturik sakonenean eta defentsan oinarrituta, Bakearen Aldeko Koordinakundean ez dugu uniformetasunaren alde egiten, ezta norberaren jarrera ideologikoak alde batera uztearen alde, beti ere printzipio demokratiko eta giza eskubideen errespetuaren eremu barruan sartzan badira, aitzitik politikan indarkeria arma jaurtigarri bezala erabiltzeari uko egiteko apustua egiten dugu, elkarrizketa bideak ezarri eta bakegintza bezalako gai amankomun eta garrantzitsuan adostasuna lortzeko ahaleginaren aldeko apustua. Zentzu honetan ezinbestekoa da **indarrak biltzea -politikoak, gizartekoak eta hiritar guztienak-** indarkeriaren aurrean, indarkeria salatzen dugunon arteko haustura litzatekeelako indarkeria eragiten dutenen lehenengo garaipena. Manifestazio hau indarkeriaren aurrean sentsibilitate politiko edo sozial ezberdina daukagun pertsonoi bat egiteko eskaintzen zaigun gunea da.
- o Hitzaren erabilpena eta joku demokratikoa askatasunari lotuta daude barru barrutik. Gaur egun Nafarroako Foru Erkidegoan eta Euskal Erkidego Autonomoan batez ere, demokraziaren egikaritza normalizatua nabarmen mugatzen duen askatasun falta ikaragarria dago. Jazarpen indarkeria alderdi politiko zehatz batzuegan eragina duen arazo bezala ikus dezakegu, baina arazo sakonagoa da eta hori aurtengo manifestazioa egiterakoan kontuan hartu nahi izan dugu. Askatasun falta honek airean dauka sistema demokratiko osoa. Ezin dugu pentsatu Alderdi Popularrak, Alderdi Sozialista eta Unidad Alavesaren arazoa denik soilik, guztion askatasuna dagoelako jokoan, gure botoa alderdi batera edo bestera joanda ere. *Voltairek esango zukeen bezala: Ez nator bat zurekin, baina zure iritzia defendatzen borrokatuko nuke.* Gaur Euskal Herrian urrezko aukera daukagu ideia hau gauzatzeko. Bakearen Aldeko Koordinakundean egoera hau arazo larria dela uste dugu:
 1. Nafarroan eta Euskadin ordezkari politiko izateko aurkezten diren hiritarren kopuru handi batek heriotza mehatxua daukalako bere gain.
 2. Alderdi politikoak ezin direlako baldintza berdinetan aritu, eta honek hauteskunde emaitzetan eragina izan dezakeelako.
 3. Eskubide falta ez delako hautagaiena soilik, hautesleengan ere badu eraginik, hauek aukeratutako ordezkariaren jarduera asko murriz daitekeelako.Guzti honegatik, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundetik hiritar guztien giza eskubideen errespetu arduratsuekiko konpromiso aktiboa eskatzen diogu gizarteari; bizitzeko eskubide bortxaezinarekiko, justiziarekiko, harremanen humanizazioarekiko, askatasunarekiko... bi hitzetan gure etorkizunarekiko konpromisoa. Eta hauteskunde aurreko abagune honetan, demokrazia askatasunean gauzatzeko dugun eskubidea exijitzen dugu.

Hiritar guztiak animatzen ditugu otsailaren 1ean, Bilbon, gizarte zuzen bat lortzeko lanean konpromisoa berriztatzea; gizarte honetan iraganekoa izan dadila azken biktima eta biktima guztiek izan dezatela gure elkartasun eta berotasuna; gizarte orekatu eta zuzena, galduari eskua luzatuko diona; tabuak erbesteratu eta kezkatzen gaituzten gaiei buruz askatasunez hitz

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

egiteko gunea, konbentzituak izateko beldurrik gabe; guztiok sartzen garen gizartea, intolerantzia, errespetu falta eta fanatismoak gabeko gizartea.

Denok batera. Por nuestros derechos: paz y libertad goiburupean, bost terdrietatik aurrera Bilboko Jesusen Bihotzaren plazatik atera eta Bilboko kaleetatik zehar joango gara berriz ere geurea dena exijitzeko.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

27 de enero de 2003



Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>